

ezohiko Txostena 2011ko urtarrileko

ETAren su-etenaren
ondorengo
herritarren iritziak





Egilea: Lokarriren Koordinazio Batzordea
Argitaratzen duena: Lokarri
Inprimaketa: Antza
Lege Gordailua: SS-972-2009

Jaso ditugun ekarpen guztiak helbide honetan daude hitzez
hitz bilduta eta jende guztiaren eskura:
www.lokarri.org

Bake prozesuaren begirale izateko, eta hurrengo txostenak
eta galdetegiak jasotzeko sartu **Behatoki Sozialaren** atalean:
www.lokarri.org

Aurkezpena

2009ko uztailean Lokarri akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren Sareak abian jarri zuenetik Bake-prozesuaren Behatoki Soziala, zazpi txosten argitaratu dira, hiru hilean behin bakoitza. Honakoan, eta ohiz kanpoko izaera duelarik, 2011ko urtarrilari dagokion Behatoki Sozialaren ezohiko txostena aurkezten dugu ETAREN su-etenaren karira, 2010eko udazkeneko Txostena aurkeztu zenetik hamabost egunera.

Nazioarteko komunitateak egiazta dezakeen su-eten iraunkor eta orokorra iragarri zuen ETAK agiri baten bidez. Agiriak, neurri handi batean, gizarteak hainbestetan aldarrikaturiko indarkeriaren amaiera eta bake eskaera eta nahiari erantzuten diela jakinik, gai horietan interesa duten herritarren erantzunak zuzenean jaso nahi izan ditugu, politika eta erakundeetako eragile ezberdinen adierazpenetatik harago.

Horretarako, Lokarrik galdetegi bat zabaldu du, zuzenean su-etenarekin lotutako bost galderaz osatua. Galdetegian gai hauek landu dira: zein izan den erantzuna agiriaren aurrean, ea erantzun dien herritarren itzaropenei, zer-nolako sentimenduak eragin dituen, zer iritzi dagoen nazioarteko egiaztapenari buruz eta zein izan beharko litzatekeen Gobernuaren betekizuna agiriaren aurrean.

Soilik aste bateko epearekin beren erantzunak eta ekarpenak bidali dituzten 1.382 pertsoren partaidetzari esker gauzatu da Txosten hau.

Bere ohiz kanpoko izaera dela eta, Txosten honek ez ditu jasotzen ohiko atalak. Galdetegiaren galdera bakoitzaren emaitzen laburpenaren ondoren, erantzunen ondorioak jasotzen dira. Azkenik eta eranskin moduan, iragan urtarrilaren 11n ETAREN su-etena baloratuz Lokarrik egindako prentsaurrekoaren testua erantsi dugu.

Orain arte bezala, Txosten hau publikoki emango da ezagutzera eta eragile sozial eta politikoei bidaliko zaie galdetegia erantzun dutenen iritziak ezagutu ditzaten.


ETAren su-eten adierazpenaren ondorengo iritzi sozialak

Galdetegiak emandako emaitzen azterketa.

1. Zer iritzi duzu nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko duen su-eten iraunkor eta orokorra iragarritz ETAk egindako adierazpena?

Galdetegia erantzun duten pertsonen %89k positiboki baloratu du adierazpena baina ñabardura ezberdinekin: %57k uste du adierazpen hau aukera historiko bat izan daitekeela bakerako, %32ren iritzian garrantzitsua da baina adierazpenak ez du argi uzten su-etenaren itzulezintasuna. Galdetegia erantzun duten pertsonen %4k uste du ez dela nahikoa.

Azkenik, %7k “besteak” aukera hautatu du. Aukera honetan, batzuek zehaztu dute erantzunez galtzen utzi behar ez den bakerako aukera berri bat dela su-etena eta beste batzuek zalantzan jarri dute ETAren sinisgarritasuna.



Aukera historikoa bakearentzat: 57%

Garrantzitsua, baina atzeraezintasuna ez dago argi: 32%

Besteak: 7%


Ez da nahikoa: 4%

Iruzurra: 0%

2. Zure ustez, zer egin behar du Gobernuak agiri honen aurrean?

Galdetegia erantzun duten pertsonen %64ren irizpidean, Gobernuak lagundu eta erraztu beharko luke bizitzen ari garen memento hau, presoak hurbilduz eta Ezker Abertzalea legeztauz. %22ren aburuan, su-etena behin betikoa dela frogatu beharko luke Gobernuak su-etenaren egiaztapenean lagunduz. Bestetik, %6ren aburuz, Estatuak ere su-etena iragarri behar du eta %2rentzat Gobernuak ez du ezer egin behar ETAk ez duelako bermatu indarkeria behin betiko baztertu duela.

Azkenik, "besteak" aukera hautatu du %6k. Aukera honetan, nagusiki, ideia bat errepikatzen da: su-etena benetakoa dela egiaztatzeaz gainera, Gobernuak aldebakarreko pausoak eman beharko lituzke eta bake-prozesu bat erraztu, alderdi politiko guztienganako hurbilketa hasiz.




- Presoak hurbildu eta Ezker Abertzalea legeztatu: 64%
- Su-etena behin-betikoa dela frogatu egiaztapenean lagunduz:: 22%
- Su-etena adierazi baita ere: 6%
- Besteak: 6%
- Ezer ere ez, ETAk ez du bermatu indarkeriaren behin-betiko amaiera: 2%

3. Zer iritzi duzu su-etenaren nazioarteko egiaztapenez?

Hamar pertsonetatik seiri (%63), garrantzitsua iruditzen zaio ETAREN su-etena betetzen dela egiaztatuko duen nazioarteko eragile bat egotea eta hamar pertsonetatik ia hiruk (%29) zehazten dute esanez Estatuak egindako eskubideen urraketak ere egiaztatu beharko lituzketela egiaztatzaileek. Soilik %2k hautatu du egiaztatzaileen beharra errefuxatzen duen aukera, eginkizun hori Gobernuak bete dezakeela iritiz.

Azkenik, galdetegia erantzun dutenen %6 "besteak" aukera hartu dute, aurreko iritziak honako gogoetekin osatuz: egiaztapena ez da beharrezkoa baina bai komenigarria; nazioarteko egiaztatzaileen izendatzea begi onekin ikusita ere, egiaztapena nortzuek eta nola gauzatu behar duten argitu beharko litzateke; armak entregatzea litzateke egiaztapenik hoberena.




- Garrantzitsua, betetzen dela egiaztatzeko: 63%
- Estatuaren Giza Eskubideen urraketak ere egiaztatu beharko lituzkete: 29%
- Besteak: 6%
- Ez da beharrezkoa, Gobernuak egin dezake: 2%
- Onartezina estatu demokratiko batean: 0%

4. ETAren agiriak erantzuten al die zure itxaropenei?

Agiriak beren itxaropenei erantzun diela da aukera hautatuena, errealistak izan beharra dagoela uste baitute (%59) edo ez zutelako uste ETAk su-etena iragarriko zuenik (%4). Beren nahiak erantzun ez dituela erantzun dutenen artean, %25k agiri irmoagoa espero zuen eta %4rentzat indarkeria uztea eta erakundea desegiteak baino ez du balio.

Azkenik, %8k “besteak” aukera hautatu du beste iritzi batzuk gaineratuz, hala nola: urrats ausarta eta eskuzabala da, harrigarria da gizarteari kasu egin diotelako eta aspaldi iritsi beharko zukeen.



Bai, errealistak izan beharra dago: 59%

Ez, zerbait irmoagoa espero nuen: 25%

Besteak: 8%

Bai, ez nuen uste ETAk su-etena iragarriko zuenik: 4%


Ez, indarkeria uzteak eta erakundea desegiteak bakarrik balio du: 4%

5. Nola sentitzen zara agiria ezagutu eta gero?*

Hiru sentazio positibo hauek nabarmendu dituzte galdera honi erantzun dioten pertsona gehienek: itxaropentsu 72%, zuhurtziaz 31% eta ilusionaturik 22%. Ekintza eraso armatuak eteteko erabakia jakinaraziz ETAk irailaren 5ean kaleraturiko agiriak eragindako sentazioekin alderatuz, azpimarratzekoa da nabarmenki gora egin dutela itxaropenari eta ilusioari dagozkion portzentaiek. Itxaropena: %41 orduan eta %72 orain. Ilusioari dagokionez, oraingo portzentaiek bikoiztu egiten du orduko %11.

Gainerako pertsonak, agiriaren berri izan eta gero, jakinarazi dituzten sentazioak: eszeptiko (%9), aspertuta (%4) eta axolagabe eta desengainatuta (%1), 2010eko Txostenean jaso ziren portzentaiekin antzekoak.

* Erantzuen portzentailen batuketa ez da 100, galdera honi erantzuteko bi aukeraren artean hauta baitzitezkeen.



Emaitzen ondorioak

Behin aztertu ondoren 2011ko urtarrilari dagokion Bake-prozesuaren Behatoki Sozialaren ezohiko txostena egiteko hedaturiko galdetegiaren bidez jasotako erantzunak, honako ondorioak nabarmen ditzakegu:

Gizarteak itxaropen errealista mantentzen du

Ekintza eraso armatuak eteteko erabakia jakinaraziz ETAk kaleraturiko agiriak herritarrengan eragindako sentimenduei buruzko erantzunak jaso ziren Behatoki Sozialaren 2010eko udako Txostenean. Itxaropenaren eta zuhurtziaren artean kulunkatzen ziren sentimendu horiek. Honakoan, nazioarteko komunitateak egiazta dezakeen ETaren su-eten iraunkor eta orokorraren berri izan eta gero, zuhurtasun sentimenduari eusten bazaio ere, itxaropena eta ilusioa nabarmenki areagotu dira.

Jasotako erantzunen arabera, itzulerarik izango ez duen indarkeriaren behin betiko amaiera desiratzen du gehien-goak, baina nahi hori ez da oztopo ohartzeko su-etena iragarritzeko ETAk emandako pausoak dakarren aukeraz eta duen garrantziaz. Errealitate printzipio batetik, haintzat hartzen da agiria irmoagoa izan zitekeen arren emandako pausoa itxaropenaren eragile izan daitekeela, honakoan gizartearen bakerako eta elkarbizitzarako behin betiko aukera baten aurrean gaudela helaraziz.

Gobernuak lagundu egin behar du eta paper aktiboagoa izan

Bakerako aukera une honetan eraginkorrago jarduteko eskatzen zaio Gobernuari. Hain zuzen ere, gizartearen eskakizun horrek bi proposamen zehatz ditu:

- Gobernuak lagun dezala presoak hurbilduz eta Ezker Abertzalearen legalizazioa erraztuz.
- Gobernuak lankidetzat aktiboari ekin diezaiola su-etenaren egiaztapenean behin betikoa dela frogatzeko.

Nazioarteko egiaztapena funtsezkoa da atzeraezintasuna bermatzeko

Indarkeriaren itzulezintasuna bermatzen lagun dezakeen osagai garrantzitsutzat hartzen da ETaren su-etenaren agirian jasotzen den nazioarteko egiaztapena, su-etena benetan gauzatzen ari dela bermatzen duen neurrian.

Haatik, badira argitu beharreko zenbait gai egiaztapenaren egikaritzeari buruz. Prozesu hori nola gauzatzen den jakin behar du gizarteak, prozesuaren parte sentitu eta indarkeriaren amaiera egiaztatzeko.

Bukatzeko, nazioarteko komunitateak lan garrantzitsua egin dezakeela ere jasotzen da Gobernuak giza eskubide guztiak berma ditzan bultzatzeko.

ETAren su-etenaren urrats garrantzitsua da

Lokarriren prentsa oharra - 2011ko urtarrilak 11

Atzo Lokarrik balorazio positiboa egin zuen ETAren agiriaz, zeinetan iragartzen duen su-eten iraunkorra, orokorra eta nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko duena. Aurreikustekoa zen bat ez etortzea beste iritzi batzuekin: agiria kritikatu dute batzuek berehala, erakundea ez delako deuseztatu eta ez dutelako barkamenik eskatu beren iraganarengatik; beste batzuek esan dute ez dela nahikoa. Lokarrik jada aditzera eman du bere desioa eta eskaera dela indarkeria behin betiko amaitzea, baina hori ez da oztopo agiri honek dakarren aurrerapauso garrantzitsua balioesteko.

Egoeraren azterketa objektiboa

Agiria ikuspegi zabalarekin baloratzen badugu, ikus dezakegu orain urte eta erdi eskasa ETAk indar handiko lehergailu bat eztandarazi zuela Burgosen eta bi guardia zibil hil zituela Mallorcan. Iragan urteko irailean eraso ekintza armatuak eteteke bere erabakia eman zuen jakitera. Atzo, su-eten iraunkor, orokor eta egiaztarria iragarri zuen. Indarkeriak dakarren mehatxuaren maila jaitsi dela da lehendabiziko gertaera objektiboa.

Bruselako Adierazpenaren eta Gernikako Akordioaren deiei kasu egin diela da bigarren gertaera objektiboa. Ekimena eta lidergoa herritarrengandik, alderdi politikoengandik eta nazioarteko hainbat izen esanguratsurengandik etorri dira. Horien guztien lanari esker, ETA igaro egin da indarkeriatik su-eten batera, eta egoera berriak konpromiso bat dakar borroka armatuaren amaierarekin.

Hirugarren gertaera objektiboa da ETA, agiri honen bidez, onartzen ari dela, halaber, indarkeriari tokirik ematen ez dioten Ezker Abertzalearen estrategia berria eta jarrera politikoak. Hasierako zalantzak eta gero, ETAk bere gain hartu du hartutako erabakia. Gertaera honek, berez, balorazio positiboa eskatzen du sortutako egoeraz.

Horregatik guztiarengatik, emandako urratsa oso garrantzitsua da eta inoiz ikusi gabeko aukera zabaltzen du bakea lortu eta elkarbizitza barneratzailea eraikitzeko.

Atzerabuelta zaila

Indarkeriaren behin betiko amaieraren aurre-urrats berehalakoa izan daiteke su-etenaren iragarpena. Bermatzea ezinezkoa izanik ere, badira atentatuetara eta mehatxura itzultzea eragozten duten hiru faktore gutxienez.

1- Nazioarteko egiaztapenari men egitea onartu du ETAk. Su-etenaren haustura gertatuz gero, areagotu egingo lirateke nazioartearen presioa ETArengan eta erakundearen baztekerketa.

2- Ezker Abertzaleak uko egin dio indarkeriari. Sektore politiko horren adierazpenak argiak izan dira. Bere proiektu politikoa soilik baliabide politikoak eta demokratikoak erabiliz garatu nahi du eta azaldu du erabaki hori errespetatzen ez duena bere esparru politikotik kanpo geratuko dela.

3- Euskal gizartearen ahobatezko borondatea, zeinak argi eta garbi erakusten duen indarkeria errefusatzeko jarrera. Itxaropen berri bat sortu delarik, oraindik mesfidantza batzuek tindatuta, su-etenaren haustura batek, 2006an gertatu zen bezala, gizarteak ETA areago gaitzestea ekarriko luke.

Etorkizuneko erronkak

Bake-prozesu itulezin baterako baldintzak lortzeko ahaleginetan amore ez ematea da garrantzitsuena. Zehazki, datozen hilabeteetan hauek izango dira erronkak:

1- Egiaztapena abian jartzea su-etena betetzen dela bermatzeko eta frogatzeko indarkeriaren behin betiko amaierara ari garela hurbiltzen. ETAk zorrotz bete behar du su-etena bere erabakiaren aldebakartasuna argitzeko eta uko egin behar dio prozesuaren bermatzaile izatera eraman dezakeen edozein tentaldiri.

2- Ezker Abertzaleak sustaturiko alderdi politiko berria legezkatzea. ETAk iragarritakoaz landa, soilik baliabide politikoak erabiltzeko erabakia erakutsi dute eta indarkeria errefusatu dute. Gainera, beren ekimena erabakigarria izan da ETAk pauso garrantzitsu hau emateko.

3- Gobernuak ETAre su-eten honi erantzun egokia eman diezaion lortzea. Bere estrategia aldatu behar du Gobernuak, bakerako bidea erraztuz, eragozpenak jartzeari utziz.

Azkenik, bukatu egin nahi dugu euskal herritar guztiak animatuz ahalegina, saiakera eta itxaropena mantentzera bakea lortzeko. Horri esker, badugu aukera berri bat. Bilaka dezagun aukera hori behin betikoa.